


# BURUKO GAIXOTASUNAK DITUZTEN PERTSONEN AISIALDIKO ETA DENBORA LIBREKO ZERBITZUA ZABALTZEA

Mendekotasunaren eta Desgaitasunaren Arretako Zuzendaritza



## ZERGATIK?

Buruko gaixotasunak dituzten pertsonen kolektiboa heterogeneoa da; izan ere, kolektibo horretako pertsonak bizi garapenerako aro desberdinetan daude, eta kezka eta interes desberdinak dituzte. Kolektibo honek jarduteko dituen zailtasunen barruan, sozializazioa eta aisialdiko jardueretan parte hartzea dira gabezia handieneko arloak, ohikoak izaten baitira gizarte isolamendua eta bakardadea.

## ZEIN?

Buruko gaixotasun arazoak dituzten pertsonak.



## ZERTARAKO?




Harremanetan jartzea buruko gaixotasun larria duten pertsonak erkidegoko baliabide normalizatuekin. Gizarteratzea sustatzea, dauden aisialdiko baliabideak erabiliz eta elkargune batetik antolatuz. Kolektibo honek batzuetan jasaten dituen isolamendu soziala eta bakardadea prebenitzea.

## NOLA?

Aisialdiko eta denbora libreko gaur egungo zerbitzuaren hobekuntza, zerbitzua jarduera-eremu geografikora zabalduz eta esku hartzeko ordutegia luzatuz.

Jarduerak egitea, ingurune naturalean integratzen lagunduz eta zirkuitu sozial normalizatuetan berriro txertatuz.




## NON?

Gipuzkoako ekialdeko, Eibarko eta Beasaingo aisialdiko eta denbora libreko zentroak.

## NOIZ?

2020ko ekitaldia.



200.000€